

## **TXOMIN ITURRATE ZORIONTSUA**

### **SANTUAK EUSKALERRIAN**

Ez ei dago santu asko Euskalerrian, diñoe, eta egia izan leiteke, baiña ez dakit ba, daukaguzanak be ezagutzen doguzen. Datorren urterako egutegia gertatzen niarduala Euskalerriko eleizbarrutietan diran egutegiak azertu nebazan eta ainbat santu edo zoriondun aurkitu be bai, iparraldea ta egoaldea alkartuta, naizta Baiona'ko batzuk euskaldunak izan ez, eleizbarruti au osoan euskalerria ez dalako.

Baiña Bizkaia'n? Orain asi dira ugaritzen baiña orainsura arte santuak edo zoriondunak urri izan doguz. Balendin Zoriontsua bakarra.

### **ASPALDIKO GIROA**

Gure aldi onetan II Jon Paul Aita Santuak erreztasun berezi bat agertu dau Santuk eta Zoriondunak aintzat artzeko. Batzuk misiolari izandakoak eta fedearen alde odola emon dabenak, beste batzuk eguneroko bizitza arrunta fedez eta maitasunez bizi izan dabenak, batzuk lekaide lekaimeak, beste batzuk alargunak...

Giro onek bere ondorenak ekarri dauz gure Errira be. Balendin Zoriontsua datorren urtean ezarriko dau Aita Santuak Santuen zerrendan eta ainbat izan dira Bizkaian eta Gipuzkoan Zoriondunen maillara eldu diranak eta laster santuen artean ikusiko doguzanak.

### **TXOMIN (DOMEKA) ITURRATE**

Oneitariko bat dogu gure dimostar ospetsua dan Txomin Iturrate, Sakramentu Guztiz Santuaren Txomin edo Domeka aita. Bizkaia'ko Dima'n jai zan 1901'eko orrillaren 11'n, 1925'eko dagonillaren 9'an egin zan abede Erroma'n eta Cuenca'ko Belmonte'n il 1927'ko jorrai-laren 7'an. Ogei ta sei urte beteteko egoala joan jakun ba, santuen jarraibide argia guri itzita.

Ez dogu antziñako "taumaturgo" edo santu mirarigileen artekoa, eguneroko bizitza arrunta fedeagaz eta maitasun aundiagaz bizi izan dabenen artekoa baiño. Orretan Lisieux'ko Teresa'ren eta Gontzaga'ko Luis santuaren edo Josulagunen arteko dogun Berchmans'tar Juan'en antzekoa dogu. Ederto agertzen dau ori Salotti Kardenal eta Santu-agertzean trebea danak: "Nik irakurri dodaz Luis Gonzaga, Juan Berchmans eta ola-koen bizitzak eta auxe esan bearrean nago, pozez beterik: Aita Domingo ez dagoala santutasunean orreik baiño berago".

### **LINO AKESOLO'REN ITZULPENA**

Ba-daukagu euskeraz Aita Domingo'ren bizitza edesia be, Manuel Fuentes aitik idatzia eta Akesolo'tar Lino Idazle ospetsu dan karmeldar dimostarrak euskeratua. Auxe da liburutxu onen idazputua JAUNGOKOAK BERETZAT GURA NAU. Domingo Iturrate Zorionduna, Irukoiztarra".



*Aita Txomin zorionduna gaisozain*

### **LASTER SANTUA?**

Gure Domingo Iturrate laster ikusiko dogula Santuen artean be, uste dogu. Eta gauza pozgarria izango da guztiontzat.

Bere berbak bir-idatziaz amaituko dogu idaz-lan apal au: AGUR, ONDO BIZI, SANTU EGIN ETA ASKO IKASI.

OLAZAR'tar MARTIN'ek